

Borroka antiterrorista Zuzenbide estatuaren bukaera

Maiatzaren 28-a larunbatarekin goizeko 10-etatik goiti

Antoine D'Abbadie Entzutegian

Socoburu auzoa HENDAIA

ADIBIDE EUROPARRA

BILKURA PUBLIKOA

Jean-Claude PAYE-n parte hartzearekin. Soziologoa Bruxelles-eko Unibertsitate askean "Zuzenbide Estatuaren bukaera, borroka antiterrorista, salbuespen estatutik diktadurara"(2004) liburuaren idazlea

Euroagindua eta 18/98 auzien kontrako plataformak antolaturik

EGITARUA

2005. urteko maiatzaren 28-a larunbatarekin

10:00 : Parte hartzaileen harrera

10:15 : Euroagindua : askatasunak urratzen dituen eredu europarra

10:45 : Zerrenda antiterrorista europarrak : bidegabekeriaren garaipena

Didier ROUGET, abikatua

11:15 : Eztabaidaren laburpena

11:30 : Jean-Claude PAYE-n aurkezpena, soziologoa Bruxelles-ko Unibertsitate askean

Eztabaida eguerdiko ordu bata arte,

Koldo GOROSTIAGA Europako parlamentari ohia

Bush-en lagun lehiala den J.M Aznar konserbadorearen gobernamentu espainolak bultzatuta, Europako estatuak, 2001.urteko irailaren 11-ko gertakarien ondotik, borroka antiterroristaren aitzakia dela eta, oinarrizko eskubide eta askatasunak urratzen dituzten elkarlaguntza polizial eta judiziariorako neurriak onetsi dituzte.

Egoera horretan, Europako Batasunaren kontseiluak euroagindua onartu zuen. Euroagindua, Europako

estatuaren arteko extradizio prozedura desagertarazi eta defentsarako eskubideak deuseztatzen ditu.

Oinarrizko askatasunak urratzen dituen neurriak

Gaur egun, euroagindua estatu espainol eta frantsesaren artean manera koordinatu eta bidegabe batez erabilia dela frogatua da.

Helburua delarik haien ideia eta iritziengatik Euskal Herriko elkarte edo politika munduko militanten jazartzea eta presondegiratzea.

Euroagindua ideia eta iritzi politiko dizidentek kriminalizatzen eta gizarteko alde oso bat legez kanporatzen ditu (Garzon-en 18/98prozedurak).

Mugimendu demokratikoa bere osotasunean hunkitzen duen egoera salagarri baten aintzinean gira.

CDDHPB eta BEHATOKIaren sustenguekin